

MUGALDEKO HERRIAN EGINIKAKO TOBERA

Gabriel Aresti

Bi zatitan konpondurikako komedia

1961 TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA

Bizkaiko Ahorro Kaxak
Euskaltzaindiari lagunduaz sortu duen
zortzi milla pezetako saria.

Euskal itxurako herri bateko plazan. Aurreneko zatian, ezkerrean eliza ikusiko da, eta haren kanpandorrea, eta eskuman pelota tokoa. Erdian etxe zahar batzuk, bat arkitektura onekoa, atariaren gainean noblezi ezkutu bat duena. Mugalde da herria, Mugarte deritzan erre-sumako azkena; hura igaranez gero, Mugandi hasten da. Azkeneko zatian, erdiko etxe noblea, girlandaz eta galaridoaz horniturik agertuko da, udaberriko arratsalde bero eta argi bat izanik Erreboluxio tribunale bat bilduko baita zuleria batean, herrian gertatu ziren egintza batzuk judikatzerara.

OFIZIOEN IZENAK

1.º: Atabalaria. 2.º: Mandataria. 3.º: Kapitaina. 4.º: Apaiz jauna.
5.º: Eskola maisu jauna. 6.º: Medikua jauna. 7.º: Alkatea. 8.º:
Lehen hordia. 9.º: Beste hordia. 10.º: Maria Joanetegi. 11.º:
Belen. Guztiz : Bederatzi gizonezko eta bi andrezko. Gainera:
Herriko jentea eta soldadotzako jentea.

AURRENEKO ZATIA

Egunaren lehen orduak dira. Orientean eguzki berriaren argi brintzak agertzen dirade. Noizean behin, oilar baten kukurrukua entzuten da. Napoleonen denporako uniforme batekin jantzirik, ATABALARIA sartzen da.

ATABALARIA: *(Atabalean kolpe batzuk eman ondoren.)* Erreboluzioaren izenean, entzun bezate herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiek, Mugarte benedikatu honetako Buruzagitza Nagusiak, Mandatari Berezi bat bidali duela honera, orain hilabete batzuk hemen gertatu ziren egintza harrigarriak iker eta judikatzerara. *(Atabalean kolpe batzuk ematen ditu. Haien oihartzunean jente batzuk agertuko dira, elizatik apaiz bikario jauna, beltzez jantzirikako sorore zahar eta misteriotsu batzuekin; karrika kantoï batetik senar emazte batzuk, haur mukitsu bat eskutik harturik dakartela, ardandegitik tabernari jauna eta hordi pareak.)* Judizioak garantzia guztiak eduki detzan, soldado konpainia bat etorri da, eta orain altzatzen dute haien kanpamentua herriaren inguruetan. Konpainia honen manuan, oso kapitain agurgarri eta bizartsu bat etorri da, apaiz jaunaren etxean ostatua hartuko duena. Apaiz jaunaren etxean neskamerik baldin badago, despedi dezala harek, gure kapitainak franko higuintzen baititu andreak. Mandatari Berezi jaunak berriz eskola maisu jaunaren etxean hartuko du ostatua, eta eskola maisuaren etxean neskamerik baldin ezpadago, har dezala berehala

neska pare eder bat, gure Mandataria oso andre zalea baita. Eta ni, alkate jaunaren etxean sartuko naiz, eta bertan haurrik baldin badago, igor detzala izeba baten etxera, eztizadaten atabalikan apur. Enteratu dira oro?

Iskanbila galanta aterako da herritarren artean. Iskanbila guztia atabalaren kolpeetan isilduko da.

ATABALARIA: Herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiek jakin bezate, herritik eztuela inork alderik eginen, eta baldin inor inora joateko premia haundian badago, gure Mandatariaren eskuak firmaturikako pasaporte berezi bat eduki beharko duela. Inguruko baserrietan nobia dadukaten mutileri, etzaie pasaporterik emanen. Erreboluzioak ezpaitio amorioari amorerik ematen.

Lehengoa baino iskanbila haundiagoa egiten da. Atabalariaren kolpeak eta deiadarrak eztira kasik iskanbila horregatik entzuten. Jentea mututzen denean, atabalariak bere hitzaldiari jarraikiko dio.

ATABALARIA: Gauza ezaguna da, eta gure Buruzagitza Nagusiak sobera daki bakarrik bortxaz eta indarrarekin bentzutuko duela, nola Mugaldeko herri laborari eta baserritarraren artean, erreboluzioak eztuela oihartzun faboregarririk eduki, progresoaren eta libertatearen etsai direlako. Jakin bezate baserritarrek, borondatez egiten ezpadirade erreboluzioaren adiskide, derrigorrean eginen direla.

Kolpe batzuk ematen dizkio atabalari.

ATABALARIA: Ejenplozko justizia partitzera etorri gara. Gure soldado bat hil zen herri honetan, orain hilabete batzuk, eta gure Buruzagitza Nagusiak ezin dakuske honelako egintza nardagarri bat neurri gogorrek hartu gabe. Badaki, edo pentsatzen du, lintxamentu bat izan zela hilketa hura, ezta dukala horregatik persona bakar batek bidegabe haretako erantzun beharra, honela erakutsi zuela herri honek erreboluzioari dion gorrotoa eta gaitzerizkoa.

Jentearen artean protesta batzuk entzuten dira, baina atabalaren kolpe pixkor pare batek itoak dira.

ATABALARIA: Ezkara kastigatzera etorri. Erreboluzioak bentzutu zuenetik aurrerantzean, mugartear guztiak gara anai, gara berdin, gara libre, Erregeen denpora zikinetan, premia ematen zitzaion goikoari, goian zegoelako, eta kastigua behekoari, behean zegoelako. Egun eztago ez goirik ez beherik, guztiok gaude haltura berean, guztiok gara anai, berdin eta libre. Enteratu zarete?

Isiltasun sakon bat da galdera honi ematen zaion erantzuna.

ATABALARIA: Judikatzerara etorri gara, leialari premia eman eta desleialari kastigua ematera. Buruzagitza Nagusia herritar guztien aita maitakorra da. Mandatari Berezi bat bidali du honera. Harek, entzun eginen zaitue. Harek entzun, eta zuek berriz probatu, probatu behar duzue erreboluzioaren seme leialak zaretela. Leialtasun hori probatzeko lehen biziko urratsa, etorri garen soldado guztion alimentua, ostatua eta libersioa zuen kargura korrituko da, judizioak dirauen bitartean. Honela, traba eta oztopo gutti iminiko diguzue.

Atabalaria mintzatzen bukatu baino lehen, hutsik geratuko da plaza. Bakarrik hordi biak geratuko dira.

ATABALARIA: Herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiek jakin bezate, Erreboluzioa eztela egin txantzetan ibiltzeko, baizik pobrearen bizi moldea

hobetzeko, esklaboari libertatea emateko, gizon guztiak izan ditezin anai, berdin eta libre. Helburu ezin hobe eta haundi hauetara kontrastatzen diren, eta haien kontra altzaten diren gizon doilor eta prestu ez guztieri, odolarekin eta urkamendiarekin burrukan eginen zaie, eta eztute barkaziorik merezituko.

Inoizkoak baino kolpe pizkorragoekin kastigatzen du atabala.

ATABALARIA: Herritarrak, Erreboluzioaren mintzoa entzun. Mugarteko Buruzagitza Nagusiak bidalirikako Mandatari Berezia zuen aurrean dago. Harekin, soldado konpainia bateko kapitaina dator. Herritarrak, nirekin batera deiadar egin: Erreboluzioa eta libertatea, biba, biba!

LEHEN HORDIA: Fuera, fuera!

ATABALARIA: Gatiberioa eta miseria, fuera, fuera!

BESTE HORDIA: Biba, biba!

Hiru soldado eta beste gizon bat sartzen dira. Azken hau lebitaz, kopa kapelaz eta txarolezko zapatez jantzirik. Soldadoak Napoleonen denporako uniformeez, ATABALARIAK dadukanaren parekoez, baina zaharrenarena agirian dago gradokoa dela; beste biak grado gabeko SOLDADOAK dira. Soldado aurrena, zaharrena, KAPITAINA da, eta lebitadunarekin dator mintratzen, SOLDADOEK eskolta ematen dieten artean. Sartzen diren momentuan bertan, pelota-tokitik doa ATABALARIA. Baina HORDI biak bertan geratzen dira.

MANDATARIA: Osasun, herritarrak!

LEHEN HORDIA: Hala dakartsula Jainkoak zuri ere, gizona.

KAPITAINA: Egun on dizuela!

BIGARREN HORDIA: Hala ekar!

MANDATARIA: Gu errezibitzeko komisioa al zarete?

BIGARREN HORDIA: Gu... bada...

LEHEN HORDIA: ...tabernan geunden...

BIGARREN HORDIA: ...eta hainbeste zarata entzunik...

LEHEN HORDIA: ...zer gertatzen zen jakitera...

BIGARREN HORDIA: ...irten dugu.

LEHEN HORDIA: Hori duk eta!

MANDATARIA: Eta zer egiten zenuten tabernan, eguneko ordu goiz honetan?

LEHEN HORDIA: Bada, guk...

BIGARREN HORDIA: ...kontu bat gendukan tabernariarekin...

LEHEN HORDIA: Hori duk eta!

BIGARREN HORDIA: Baserritik... aa... etorri ginaden bart... aa...

LEHEN HORDIA: Kontuak guri artez gustatzen zaizkigu, bai?

BIGARREN HORDIA: ...nola tabernariak eztadukan hemengo dirurikan... aa...

LEHEN HORDIA: ...bada...

BIGARREN HORDIA: ...nola bere diru guztia Mugandira ateratzen duen... ee...

LEHEN HORDIA: ...bada...

BIGARREN HORDIA: ...nola eztadukan sekula pagatzeko dirurik... ii...

LEHEN HORDIA: ...bada...

BIGARREN HORDIA: ...nola bestela ezkenion gure hartzekorik kitatuko... oo...

LEHEN HORDIA: ...bada...

BIGARREN HORDIA: ...bada... arnotan diogu kobratu!

LEHEN HORDIA: ...u!

BIGARREN HORDIA: A, e, i, o, u!

LEHEN HORDIA: Kukurruku!

MANDATARIA: Lotsa gabeak!

LEHEN HORDIA: Zure pareak!

MANDATARIA: Alde hortik!

BIGARREN HORDIA: Ez hori nik!

*KAPITAINAK sablea ateratzen du maginatik eta ebakitzen eztauen
aldetikako kolpeekin jaurtikitzen ditu lekutik. Bien bitartean
SOLDADO biak firmeko posizioan geratuko dirade, eta bepururik
ere ezta mugituko.*

KAPITAINA: Hau da soldadotza bati emanikako ongi etorria!

MANDATARIA: Hordikeria gizarteko izurri pozoatsu bat da.

KAPITAINA: Izurri eta eritasun hori gizartetik kendu arte ez kara geldituko.

MANDATARIA: Gizona ezta libre izanen osasuntsua ezten bitartean.

KAPITAINA: Hori da gure filosofiaren oinarriko premisa lehena.

Biak paseatzen dira plazatik, urduri.

MANDATARIA: Kapitaina!

KAPITAINA: Zer?

MANDATARIA: Nun daude herri honetako agintariak?

KAPITAINA: Eztakit, mandatari jauna. Baina mugaldekoko herrixka koxkor hauetan, jentea ezta goiz zalea, pizka bat alferrak eta nagiak dira. Segururik ezta ohetik oraudio jaiki.

MANDATARIA: Etor ditezila lehen bait lehen.

KAPITAINA: Soldadoak!

MANDATARIA: Ekar dezatela alkatea! Harekin eskola maisua, medikua eta bikarioa.

KAPITAINA: Soldadoa, bost minutu baino lehenago hemen egon behar dute herritar hoiek!

SOLDADOA: Zure aginduetara!

Badoazi biak.

MANDATARIA: Entzun, kapitaina. Badakizu oso arduratzen nauela zer egin honek. Alde batetik, hango jente guztiak bere epaia eman du judizioaren gainean. Herri honek Mugarteko jeografiatik kendua izan behar duela. Baina Buruzagitzak problemaren sustraierano allegatu nahi du, ea hemen Erreboluzioaren kontrako zerbait mamitu den, edo kontrara, harekin lokarrik gabeko gauza bat izan zen hilketa hura.

KAPITAINA: Hori, soldadoak Mugandira ihesik egin ezpazuen.

MANDATARIA: Kordel guztiak lotu behar dira ongi. Probatu behar dugu lehenbizi soldadoa hil zutela, edo hobeki esanik, hil zela, etzela estranjeriara eskapatu. Gero hil zutela, etzuela berak bere burua hil, edo eritasun batez etzela hil. Gero nork hil zuen. Eztadin okerbiderikan egon, eztadin bidegaberikan egon. Erreboluzioaren justizia eta zuzenbidea bere bizitasun guztian argi dadin.

KAPITAINA: Eta nola egin liteke guzti hori?

MANDATARIA: Adizu, kapitaina, egidazu mesede bat. Lehen hemen egon diren mozkorti biak ekar zaizkidazu honera lehen bait lehen, haiek esanen baitigute egiaren pizka bat. Mundu honetan bi person klase daude bakarrik egiak esaten dituztenak, haurrak eta hordiak. Zoaz, arinki eta korrikan, hemengo agintariak ekarriak izan ditezina baino lehenago, ea.

Badoa KAPITAINA. ATABALARIA sartzen da.

ATABALARIA: Osasun dizula, Mandatari Berezi jauna.

MANDATARIA: Zer ikusten da herritik? Jentea kontent al dago gure etorrerarekin?

ATABALARIA: Eztirudi.

MANDATARIA: Nola eztirudiela?

ATABALARIA: Leiho eta ate guztiak hertsirik daude. Berria barraiatu bide da, gu heldu garela. Eztira herri honetan gure adiskide. Noizean behin, leiho bateko gortina, pizka bat altzatzen da, eta andre jakin nahi baten aurpegia agertzen da, baina

berehala, senarraren eskuak eraginik, ezkutatu egiten. da begitartea. Zakurrik eta katurik ere ezta ikusten, jauna. Gure bildur dira.

MANDATARIA: Orduan egiazkoa izan zen gure soldadoaren hilketa. Beste probamenturik ezta behar, akusatuaren aitorketa baizik.

ATABALARIA: Dena dago isilik. Eulien hegaldaketa bera ere ezta entzuten. Badirudi hilerrri batean sartuak garela. Kanpan dorrearen gurutzeta, altzispres bat iruditzen zait batzutan.

MANDATARIA: Izugarria izanen da gure zihorketa. Eztut hemen harriaren gainean harririk utziko. Eskuaren mamia bezain zelaia geratuko da herria.

ATABALARIA: Eta eliza baten santutasunean biro baten antzean, isiltasun sakon eta misteriotsu honetan, gizon mozkorti eta horditu bi dabilta hortik kalez kale, oihuka eta irrintzika, barrez eta kantuz.

MANDATARIA: BI gizon daude behintzat, gure herabe eztirenak. Arnoak ematen duen gizontasunarekin.

ATABALARIA: Hor datortza, gure kapitain jaunaren sableak eraginik, bultzaturik.

MANDATARIA: Badaki horrek bizioa nola trata.

ATABALARIA: Soldadoa hobeki portatzen da haren agindu-pean.

Eliz ostetik kapitaina eta bi hordiak agertzen dira.

ATABALARIA: Nolako planta ederra dadukan! Lebitaz jantzirik ere, ezagutuko litzaioke kapitantzeta. Barka bezait, baina hemen ikusten banau, sano hasarratuko da nirekin. Nire obligazioa bete behar dut.

Atabala joarekin doa ATABALARIA. KAPITAINA eta HORDI biak MANDATARIARI hurbiltzen zaizkio.

MANDATARIA: Aguro ibili zara, kapitaina, zimio pare hau ekarten.

KAPITAINA: Haien zantzo eta kantek laster eraman naute haiengana.

MANDATARIA: (*HORDI bieri.*) Herritarrak! Zuek, zer diozue?

LEHEN HORDIA: Ezkara gu kulpadunak.

MANDATARIA: Nola?

LEHEN HORDIA: Eztela gure errua, eztadukagula hemengo gertaerekin zer ikusirik.

MANDATARIA: Niri esan didate zuek izan zinetela gehien ikusi zirenak.

BIGARREN HORDIA: Ez, gu ezkara hemengoak,

LEHEN HORDIA: Gure etxera heltzeko hiru legoa egin behar dira, oinez.

MANDATARIA: Baina zure bernak hazkarrak dira. Gainera etzarete etxeroak, etxean egotea etzaizue gehiegi gustatzen.

LEHEN HORDIA: Bada... egia da...

BIGARREN HORDIA: ...eztagoela ez jairikan ez bestarikan herri honetan...

LEHEN HORDIA: ...gure presentzia gaberik zeblebra ditezinak...

BIGARREN HORDIA: Badakizu? Ihazko Santijagoak...

LEHEN HORDIA: Andre Mari egunean zebratu ziren...

BIGARREN HORDIA: ...hau plumoniarekin zegoelako.

MANDATARIA: Eta gero Madalenetan zer gertatu zen?

BIGARREN HORDIA: Toberak eduki genituen.

LEHEN HORDIA: Ederrak gero!

BIGARREN HORDIA: Barreak egin genituen Beñat Larresororekin!

LEHEN HORDIA: Mutil galanta Beñat Larresoroko!

BIGARREN HORDIA: Koplari fina! Hura baino finagorik ezta hemen sekula ikusi!

LEHEN HORDIA: Urrikari Beñat!

BIGARREN HORDIA: Heriotze dorpea eman zion soldado harek!

LEHEN HORDIA: Bai, madarikatua izan bedi!

BIGARREN HORDIA: Honelako gizonak moldatu ditu Erreboluzioak!

LEHEN HORDIA: Doilorrak, etoiak, prestuezak, barkaziorik gabekoak!

BIGARREN HORDIA: Senar bat bere andreak enganatzen baldin badu...

LEHEN HORDIA: Lasturko zezenek baino adar luzeagoak baldin badaduzka...

BIGARREN HORDIA: ...eta konturatu ere ezta egin nahi...

LEHEN HORDIA: Ze eskandalo herrian!

BIGARREN HORDIA: Bularreko haurrak berak ere mintzatzen ziren hartaz

LEHEN HORDIA: Gizon batek oiloa bezalakoa baldin badaduka andrea...

BIGARREN HORDIA: ...eta harek ezta ezagutu nahi izaten...

LEHEN HORDIA: ...eta gainera dio Ama Birjina baino prestuagoa eta santuagoa dela...

BIGARREN HORDIA: ...orduan zuzen da...

LEHEN HORDIA: ...bere zuzenbidean eta eskubidean dago herria...

BIGARREN HORDIA: ...inungo toberak egiten badizkio!

LEHEN HORDIA: Kontu egizu!

BIGARREN HORDIA: Soldado ezkondu bat!

LEHEN HORDIA: Nun zegoen erresumaren ohorea!

BIGARREN HORDIA: Oilo baten eskuetan, alegia!

LEHEN HORDIA: Ze oilo eta ze zezenko!

BIGARREN HORDIA: Eskarmentua hartu zuten, ederra eta pare gabekoa!

LEHEN HORDIA: Ez ahaztutzekoa!

BIGARREN HORDIA: Bai, sekulakoa!

LEHEN HORDIA: Eztakizue zer egin genuen?

BIGARREN HORDIA: Zuleria bat muntatu genuen plaza erdi erdian.

LEHEN HORDIA: Eta komedia bat asmatu genuen!

BIGARREN HORDIA: Tobera mustra.

LEHEN HORDIA: Beñat Larresoroko izan zen gauza guztiaren arima. Haren ohorean aitortu behar da.

BIGARREN HORDIA: Mutil argia!

LEHEN HORDIA: Soldadoaren ofizioa hartu zuen harek komedian.

BIGARREN HORDIA: Hemen, lagunak, soldadoaren andrearena.

LEHEN HORDIA: Eta honek, zikiriatzalearen ofizioa.

BIGARREN HORDIA: Ongi egon zinen zu, mutila!

LEHEN HORDIA: Eta zu, haizurrekin? Artaziekin?

BIGARREN HORDIA: Ederki egin zenituen zuk haur egitearen minak!

LEHEN HORDIA: Eztitu nire andreak alferrik hamabost seme alaba, oro nireak, mundu honetara ekarri.

BIGARREN HORDIA: Eta gero, bere frutua sabeletikan bota zuenean? Eztakizue nolako semea eduki zuen? Eztuzue igarriko! Katu beltz bat! Ha, ha, ha! Hirian eztuzue gure toberaren berririk jakin? Zelebrea!

LEHEN HORDIA: Honek, egurrezko guraize haundi pare bat ekarri zuen, gizon baten bernak baino luzeagoa!

BIGARREN HORDIA: Egur egunekoa, gero!

LEHEN HORDIA: Harekin egin zuen zikiriatzalearen ofizioa! Guztien artean, anketatik eta besoetatik harrapatu genuen Beñat Larresoroko, soldadoaren ofizioa egiten zuen mutila, badakizue. Ezertarako balio eztuten idiskoak, kapatu behar dira. Behiak eskapatzen uzten dituzten zezenak, idi bihurtu.

BIGARREN HORDIA: Gizon askorekin ere, hori berberori egin behar litzake sarritan, baina ez bakarrik toberan eta gezurrez, baizik egiaz eta benetan ere bai.

LEHEN HORDIA: Barreak! Deabrukeria! Ongi asmatzen zituen gure Beñatek komediak! Zikiriatzaleak bere lana akabatu ondoren, bere zer eginaren etekina erakutsi zion jenteari. Zer, eztakizue? Artilezko mataza pare bat, lehengo egunean herriko dendan honek erosi zuena! Barreak! Deabrukeria!

Kapitainak eta Mandatariak barre egitea baizik beste erremediorik ezta dukate. Baina Mandatariaren aurpegira laster bihurtzen da seriotasunaren jela.

MANDATARIA: Eta esaidazue, jente ona, nun dagoen orain zuen lagun hori... Beñat Larresoroko hori. Honelako mutil argi bat ezagutzeko gutizia haundian bainago.

LEHEN HORDIA: Hilerrian urrikaria, gurutze baten azpian.

BIGARREN HORDIA: Lehen aipatu dizugu, nola hil zuen basoan soldado harek.

MANDATARIA: Ez, soldado harek ez. Ordenamentu berezia dadukate gure soldadoek, eztezen inor hil, ezta bizitza defenditzeko. Personen bizitzen eta heriotzen gainean erabakitze, izentatuak gara Buruzagitza Nagusiak bidalirikako Mandatari Bereziak.

LEHEN HORDIA: Hala, Mugarteko hiri nagusietan gertatuko da, baina Mugaldeko herrixka koxkor eta ttiki hauetan, bestela konprenitzen da zuzenbidea.

MANDATARIA: Nola konprenitu zuen, bada, zuzenbidea, soldado harek?

LEHEN HORDIA: Oso mindurik geratu zen toberarekin, eta Beñat mendira egurketan joan zen behin...

Lehen soldado biak agertzen dira, eta lehenbizikoak agur egiten dio kapitainari.

LEHEN SOLDADOA: Kapitaina, hor hartu ditugu alkatea, apaiza, maisua eta medikua, guztiak preso.

MANDATARIA: Iguriki dezatela! (*Oso hasarraturik geratu da soldadoen sarreragatik.*) Zuk, jarraiki! Beñat mendira joan zen behin...

LEHEN HORDIA: Soldadoarekin egin zuen topo...

BIGARREN HORDIA: ...eta honek, arrenkurak eraginik...

LEHEN HORDIA: ...eskuetan fusila harturik...

BIGARREN HORDIA: ...tiro batez zilatu zion burua!

LEHEN HORDIA: Mendekantza zikina!

BIGARREN HORDIA: Bihotz gogorra!

LEHEN HORDIA: Pagu zikoitza!

BIGARREN HORDIA: Honelako eraile doilorrek, heriotza merezi dute!

LEHEN HORDIA: Gainera...

BIGARREN HORDIA: ...hala diote, eta badirudi egia dela...

LEHEN HORDIA: ...beste zauri lotsagarriago bat zedukan mutilak sabelaren azpian...

BIGARREN HORDIA: ...eta haragizko bolak imini zizkion eraileak esku-artean...

LEHEN HORDIA: ...toberan txantzetan eta burla burlaka Beñatek asmatu zuen egintza, besteak egun guztietako bizi modura eraman zuen.

MANDATARIA: Eta soldadoa, nola hil zen?

Mutu geratzen dira mozkorti biak.

MANDATARIA: Bai. Zer gertatu zen harekin?

BIAK: Eztakigu, jauna.

MANDATARIA: (*Oso hasarratzen da; deidarrez mintzatzen da.*) Nork hil zuen?

BIAK: Eztakigu, jauna.

MANDATARIA: (*Lehen hordia lepotik hartuz.*) Zu izan zinen? Nola hil zenuen? (*Gogorki astintzen dio burua.*) Ganibet batekin edo pistola batekin? Aitor! Konfesa!

LEHEN HORDIA: Ni eznaiz kulpaduna, jauna. Horren gainean ezta nik ezertxo ere; zin egiten dizut, jauna.

MANDATARIA: Soldadoak: preso eraman astokilo bi hauk! Eztitezila eskapa! Eta arno franko emaezue, edaten.

SOLDADOA: Kapitain jaunaren aginduetara!

MANDATARIA: Eta etor ditezila lau gizon hoek!

SOLDADOA: Kapitain jaunaren aginduetara!

Bakarrik geratzen dira Kapitaina eta Mandataria.

MANDATARIA: Zoazte, zoazte, arineketan, aguro, denporarik galdu gabe!

KAPITAINA: Zer deritzazu gauzari?

MANDATARIA: Zesarrek bezala esan dezaket: veni, vidi, vici. Allega, ikus eta bentzu. Zerbait egin dugu ordu erdi honetan.

KAPITAINA: Oso trebea izan zara galderekin.

MANDATARIA: Gure Erreplubikako soldado bat! Ezin esan dezakegu gizon prestua izan zela. Baina halare, martiri bat izan balitz bezala judikatu behar dugu hauzia. Bestela, alferrikakoak izanen lirake gure zer egin guztiak. Erreplubika alferrik proklamatu genuen. Gure depurazioak alferrik. Erregearen familia guztiaren afusilamentua alferrik. Guztia alferrik. Hainbeste odol inozent, hainbeste gose, neke eta dolore, alferrik. Badakit, beharbada, judizio honetako azken epaiarekin, ezkarela zuzeneko bidetik ibiliko. Justizian, gehienetan, ezpaita zuzenbiderik kausitzen.

KAPITAINA: Bai. Problema gaitz baten aurrean zara aurkitzen.

MANDATARIA: Justizi partitzalearen ofizioa ezta erreza, ezta atsegina. Kulpa baten aurrean ikusten garenean, bi sentimentuk egiten du burrukan gure barnean: alde batetik, kastiguaren premia altxatzen da Rodaseko koloso bortitz eta poteretsu baten antzean, eta bestetik, birjina dultze baten moduan, bere balagoak eta lausenguak esaten dizkigu, emaro eta poliki, birtute nardagarri batek urrikalmentuak. Gizon bat da, okerreko bidetik abiatu dena, eta zuzeneko bidera itzul arazi behar dioguna, judikatzaleak, bat edo beste hautatu behar du, bi konponketa hoek etsaiak eta kontrarioak baitira. Orduan bildur izugarri batek asaldatzen gaitu: komeni den konponketa hautatuko dea? Kulpadunaz urrikaltzen baldin bada, eta gero hau okerreko bidera itzultzen, damuak eta dolamentuak pisatuko du judikatzalearen buruaren gainetik, ezpaitzuen errotik atera, garau pozoatsu eta zornetsu hura. Eta aldrebes gertatzen baldin bada, damua geratuko zaio barnean, urrikalmentu pizka batekin beharbada, kondenatua bere bizitza guztian gizon prestu bat izanen litzakeena.

KAPITAINA: Ezlitzaidake zure buru barnean egoterik gustatuko. Bortitz izan behar duzue. Barneko gatazka eta burrukaldi hori ezta deseagarria.

MANDATARIA: Gero jenteak, beti pentsatzen du interesak daduzkagula. Pagatzale hoberenari saltzen gatzazkiola. Eta eztakite gure ofizioa eztela munduko urre eta zilar guztiarekin pagatzen.

KAPITAINA: Zugan ongi ikusten da hori; erreboluzioak judikatzaleari ematen dien soldata ezpaita aberatsegia, eta zu soldata horrek eskeintzen duen bizi moldearen arauera bizi zara.

MANDATARIA: Batzutan, ofizio hau uzteko gutizia etorten zait burura eta arimara. Ni, pozik izanen nintzake, zu bezalako soldado bat. Ofizio horretan ezta duda haundiegirik presentatzen: obedientziarekin aski eta sobera da. Edo laboraria izanen nintzake, frutua ongi etorten baldin bada, benedikatua izan dadila Jainkoa, eta txarki baldin badator, benedikatua orduan ere. Baina gu gabe, ezlitzake erreboluziorik egonen. Gizartearen giltzarria gara, mundua sustengatzen duen oinarria, aberatsaren segurantza eta pobrearen esperantza. Hau pentsatzen dudanean, ez, eztut nire ofizioa utzi nahi. Bai, nire pentsamentu eta asperkunde gaizto guztiak joaten dira berehala niregandik, (*Karrika kantoi batetik soldadoak eta herriko agintariak agertzen dira.*) Baina utz dezaigun filosofia aspergarri horri, hor baitatortza gure gizonak. Herri gobernariaren izenean, agur guztiori.

ALKATEA: (*Gizon gaztea da, euskaldun baserritar aberats baten moduan jantzirik dago.*) Egun on dizuela, zuek biori, Mugaldeko herriaren izenean ongi etorria ematen dizuet. Egoaldi ederra eduki dezazuela gure artean.

MANDATARIA: Ni naiz Buruzagitza Nagusiaren Mandatari Berezia. Jakinen duzue oraingotz, gure soldadotzak herri honetako kargua hartu duela. Hemen presentatzen dizuet gure kapitain jauna.

ALKATEA: Urte askotarako. Hemen gure apaiz jauna, hemengo bikarioa.

MANDATARIA: Nunbait ikusiak gara lehen.

APAIZA: Infernuan ez behintzat. Ni eznaiz han sekulare egon.

MANDATARIA: Ni bai, zuek eta zuen adiskide eta gogaide aberats eta haundiekiek pobrearentzat antolaturikako eta apaindurikako infernuan. Suzkoa ez ezikan, bai gosez eta hotzezko infernu batean. Orain desegintzen dugun infernu haretan.

ALKATEA: Hau da medikua.

MANDATARIA: Osasun, mediku jauna.

MEDIKUA: Ordua zen, inor etor zedin.

MANDATARIA: Zertan etor?

MEDIKUA: Urak erre kara bihurtzera.

MANDATARIA: Madretik atera al ziren inoiz?

MEDIKUA: Hemengo urek erreka bat zer den ere ez takite. Izingura geldi batean pozoatzen dira.

MANDATARIA: Uste dut ederki entenituko garela.

MEDIKUA: Nik eztut horrela uste. Asuntu honetan ez tadarik ez salidarik.

MANDATARIA: Orduan, badakizu zertan etorri garen?

MEDIKUA: Eta zeinek ez taki?

MANDATARIA: Zure lekukotasuna laguntza haundikoa izanen zaigu.

MEDIKUA: Begira, mandatari jauna, nire errespeto guztiak daduzkazu. Baina bizitza honetan haunitz lezio hartu dut, itsu eta sogor izaten irakatsi didana. Nik badakit zer gertatu zen hemen, baina ez nola. Oihanean tigre eta lehoien artean gudaldia baldin badago, nori eskatuko zaio lekukotasuna? Hegaztinari eta hienari, duda gabe, ez inoiz satorrari; hau lurpean dabil itsurik. Ni naiz satorra, ezertaz enteratu ez tena.

ALKATEA: Eta azkenean, mandatari jauna, zilegi izan bekit gure eskola maisua presenta dizazudan.

MAISUA: Zilegi izan bekit niri ere, mandatari jaun agurgarria, nire kunplimentuak presenta dizakizudan zuri, nire diosalik egiatiena, nire deseorik hoberena, erreboluzioak herriaren alde eta arrazoiaren fabore egiten hari den lan haundiagatik. Premiazkoa, beharrezkoa, derrigorrezkoa zen erreboluzioa, eta jente xehea haren zai eta haiduru zegoen. Permitti izadazu, mandatari jauna...

MANDATARIA: Zuk ez takizu gauza bat, maisu laguna. Erreboluzioaren aldekoak garenok, ez kara mintzatzen, obratu egiten dugu. Gehienetan, hitz ederrak ahoan, korapiloa golkoan, zuk bezala hitz egiten duenak, zerbait ez kutatu nahi du.

MAISUA: Mundu guztiak daki herri honetan, jauna, nola ni hasieratik bertatik aitortu nintzen gobernu zaharraren kontrako eta berriaren aldeko. Naikoa tristura kostatu dit nire ihardukierak.

MANDATARIA: Guzti hori bere garaiz probatuko duzu.

ALKATEA: Anartean, jaunak, esperatzen dugu egoera gogarakoa edukiko duzuela gure artean, eta zuen hemengo egoitzak ez tuela gure herriaren bizitza normalari oztoporik iminiko.

MANDATARIA: Zuk, alkate jauna, sinets arazi nahi diguzu, ilargitik etorri zarela oraintxe. Ez al dakizu zertan etorri garen?

ALKATEA: Maliobrak edo?

MANDATARIA: Maliobrak

ALKATEA: Edo inbasio baten bildur al da?

MANDATARIA: Ez, alkate jauna, ez. Oso aurpegi inozenta imintzen duzu, baina zure bildots larruaren azpitik otso belarria ikusten zaitzu. Ezkaituzu enganatzen, ez.

ALKATEA: Eztut nik inoiz gezurrik asmatu.

MANDATARIA: Bai, badadukat zure berri. Eztuzula sekulare gezurrik asmatu, baina hala eta guzti ere eztuzula sekulare batere egirik esan. Bi uren artean iheri dagoen arraia bezalakoxea zara zu. Kandela bat Jainkoari, eta beste bat deabruari. Guztien lagun, eta ez inoren etsai.

ALKATEA: Mandatari jauna, ezin onart dezaket horrelako irainik. Herri honetako alkatea naizela...

MANDATARIA: Orain ez tago herri honetan alkaterik. Zure kargutik dimititzen duzu, eta Buruzagitza Nagusiak onartu egiten dizu dimisioa. Herri hau, soldadotzaren agintaritzan pean geratzen da. Gerra legearen azpian. Ezta inor hemendik ez sartuko ez aterako. Zuek laurok, kapitain jaunaren jagotza pean geratuko zarete.

ALKATEA: Protestatu egin behar dut, mandatari jauna.

MANDATARIA: Etzara zure protestez baliatuko. Nire ordenamentuak kunplimentatuko dituzu, kapitain jauna. Lau gizon hauek ez tute inorekin hitz eginen, ez etare elkarren artean. Ezta inor bere etxetik aterako. Karrikatik ezta inor paseatuko. Eliza eta Herri etxea zarratuko dira, hala nola eskola ere. Eztu inork eri edo gesorik egoteko eskubiderik edukiko. Jente guztia prest egonen da nire deiari etorteko. Bost minutuko igurikierarik ere, ezta permittituko. Eta judizioa

arratsaldeko ordu bietan zebratuko da, plaza honetan. Egin dezatela soldadoek, etxe zapar horren aurrean zuleria bat, dotorezia eta edertasuna prestatzeko.

KAPITAINA: Zure ordenanientuak kunplituak izanen dira.

MANDATARIA: Obedi bedi, bada.

Teloia jatsirik, aurreneko erdia akabatzen da.

Mugaldeko herrian eginikako tobera, Gabriel Aresti

Egan, 3/6-1961

AZKENEKO ZATIA

Mugalteko plaza, egun bereko ordu bietan. Erdiko etxe zahar eta noblea, girlandaz eta galardoaz dago horniturik, eta haren aurrean, metro eta laurdeneko zuleria bat, teatruaren erdia okupatzen duena, Mugarteko bandera gorri urdinarekin apaindua. Teloia altzatzen denean, hutsik dago teatrua; hurrutik atabal baten soinua entzuten da, geroago eta haundiagoa egiten dena, atabalaria teatruan sartzen den arte.

ATABALARIA: (*Atabala jotzeari utzirik.*) Herri honetako gizon-andre, agure-atso eta neska-mutil guztiek jakin bezate, berehala emanen zaiola hasiera judizioari.

(Kapitaina eta Mandataria sartzen dira. Zuleriara iganik, bertan esertzen dira.)

KAPITAINA: Atabalari laguna, soldadoak sar ditezila.

ATABALARIA: (*Atabala joz.*) Soldadoak etor ditezila. (*Lau soldado sartzen dira.*)

KAPITAINA: Soldadoak, apaiza ekar zazue. (*Badoa soldado bat; beste bi zuleriaren aldeetan geratzen dira, eta laugarrena Mandatariaren atzean.*)

MANDATARIA: Egiaren erdia dadukagu.

KAPITAINA: Beste erdia ere, zure habileziarekin, laster edukiko dugu.

MANDATARIA: Eztago niretzako horren gainean batere dudarin; orain bakarrik, zehaztasun bat geratzen zaigu, zer argi.

KAPITAINA: Eta zein da hori?

MANDATARIA: Nor izan zen lintxamentua proposatu zuena.

KAPITAINA: Zehaztasun horrek alda dezake judizioaren sententzia?

MANDATARIA: Bertan datza gauzaren funtsa. Hori izanen litzake herri honen salbazioa. Hura eta harekin egon zirenak urkatzearekin, kitu. Honela, hamabi urkatukin, hemengo gure beharra kunpliturik geratuko litzake.

KAPITAINA: Eta bestela?

MANDATARIA: Bestela, ezlegoke urkamendirik, ezlegoke hilik. Baina epaia latzagoa izanen litzake. Hor dator apaiza. Txarki probatu zaio gartzelamentua. (*Apaiza eta soldadoa sartzen dira. Aurrenekoak kolpe bat daduka begian, moratua.*)

APAIZA: Eliz Ama Santuaren izenean protestatzen dut, Jainkoaren ministro bat, lapur bat balitz bezala, tratatzen duzelako, baina nire kontsolamentua da hala tratatu zutela fariseoek Jesukristo gure Jauna bera ere.

MANDATARIA: Lege Berriaren aurrean, gizon guztiak dira berdin. Gizon klaserik eztago. Ez eska, bada, merezitzen eztuzun eskubiderik.

APAIZA: Jainko bat dago, eta hura da bortitz eta errespetagarri. Hala nola tratatzen nauzuen ni, hala tratatzen duzue hura ere. Nigan egiten duzuen gaitza, harengan ere egiten duzue.

MANDATARIA: Hitzak eta hitzak. Ederki egiten dituzue sermoiak, pronuak eta predikuak. Gauza bat da predikatzea, eta beste bat oso diferentea ogia ematea. Gizonak, obrakatik neurtzen ditugu guk. Hala, ez sermoirik guri, kulpituan ezpaitzaude. Gure galderari ihardetsiko diozu egiarekin, eta hala nola den. ihardukiera, hala izanen da zure tratamentua ere. Ez ahatz hori. Konpreni duzu? Legearen aurrean zaude, eta zure apaizgoa alde batera utzirik, zure gizontasuna judikatuko dugu, eta gizon prestu bat zarela erabakitzen baldin badugu, gizon prestuek merezi duten errespetoa eta tratamentua eskeiniko dizugu. Konforme?

APAIZA: Bai, zuekin beste erremediorik ezpaitago.

MANDATARIA: Orduan, erantzun. Zeinbat urte daramazkitzu Mugalden bikario?

APAIZA: Hogeia.

MANDATARIA: Orduan, ederki ezagutuko duzu hemengo jentea, ezta?

APAIZA: Bai, hemengo jenteak, kristau onak dira, eta nirekin konfesatzen dira hilero.

MANDATARIA: Elizan kontatu zaizkitzun ipuien gainean, eztizugu ezer galdetuko. Bakarrik eliz kanpoan ikusi dituzun gauzen gainean. Beñat Larresoroko ezagutu zenuen?

APAIZA: Bai, mutil ona.

MANDATARIA: Badakizu nola hil zen?

APAIZA: Bai, Joanetegi soldadoak hil zuen.

MANDATARIA: Zer da tobera bat?

APAIZA: Herriko norbaitek bizitza ez ona daramanean, eta senar emazte arteko har emanetan gauza itsusi bat dagoenean, mutilek haiengatik burla egiten dute. Bertsolari bat ekarririk, egiak esaten dizkiote. Askotan, bertsolariak bertso papera ateratzen du. Hori egiten dute, andre alargun bat mutil gazte batekin ezkontzen denean, mutxurdin bat donado batekin ezkontzen denean. Andreak bide okerra hartzen duenean, mutilek toberak ateratzen dizkiote gizonari, eta honek erremedioa bilatzen ezpadio egoerari, haren zezen adarrekin kontent geratzen baldin bada, orduan tobera mustra bat muntatzen zaio.

MANDATARIA: Eta hemen, Mugalden, sarri egiten al da honetako gauzarik?

APAIZA: Toberak bai, sarritan kantatzen dira. Motibo bat edo bestegatikan, urte guztietan lauretan edo bostetan. Tobera mustrak berriz oso guttitan. Aurkientza honetan, haran honetako hamabost herrietan, azken hogeia urte honetan, hiru tobera mustra muntatu dira bakarrik.

MANDATARIA: Hemen, Mugalden, inoiz muntatu al da tobera mustraren bat?

APAIZA: Nik dakidanez, behin bakarrik.

MANDATARIA: Bai, badakit, Joanetegi soldadoaren andrearen ihardukieragatik, Beñat Larresoroko batek muntatua. Zer deritzazu zuk toberari?

APAIZA: Gehienetan eztiote inori kalterik egiten, eta bai askotan fabore haundia. Tobera bertsoak oso piper haundikoak dira, baina badakizu zer gertatzen den basoko herri hauetan, jenteak ttikitandik daki jaiotzearen eta heriotzearen arrazoia, eta eztira eskandalagarriak. Jente gaztea libertitzen da, ezkonduak hobeki portatzen dira bildur arren. Funtsean toberak eztira onak, baina kalte baino fabore gehiago ekarten diote gizarteari.

MANDATARIA: Eta tobera mustrak?

APAIZA: Hori beste errusinola baten kantua da. Beti izan naiz ni haien etsaia. Ihaz oso kontrakoa jarri nintzen haien aurrean. Elizan sarrera debekatu nien.

MANDATARIA: Kalte haundia dakarte orduan.

APAIZA: Bai, fabore baino. Orduan grinak soltatzen dirade, eta beti akabatzen da guztia parte txarrean. Deabruak asmatuakiko gauza da, eta deabruak eramaten du guztia azken finean.

MANDATARIA: Zer pasatu zen ihaz, bada?

APAIZA: Ni ez nintzen presente egon.

MANDATARIA: Eta zein izan zen toberaren ondorioa?

APAIZA: Guztiek dakite. Joanetegi soldadoak, kontrabandoaren aitzakiarekin, portuetan hil zuen Beñat gurea. Mendekantza zikina.

MANDATARIA: Eta zer gertatu zitzaion gero Joanetegiri?

APAIZA: Gauza itsusia, nik benedika eztezakedana.

MANDATARIA: Etzuen atzerrira ihesik egin, orduan?

APAIZA: Bai, mugarako bidea hartu zuen, bere andrearen atzean. Gau haretan baserri batetik nentorren ni, kristau bati olioak ematetik, Joanetegirekin topo egin nuenean. Esan zidan andrea maitale batekin eskapatu zitzaioala bestekaldera, eta atzean zoakola ea ebaki ahal zezaiokeen ihesia. Inor ez hiltzeko agindu nion eta erantzun zidan kulpadunak punituak izanen lirakeela. Ezer egin ahal ukan gabe, herrirat bihurtu nintzen, eta eliz aurrean Beñaten andregaia topatu nuen, izuak eta ikarak aurpegitik zerizkiola. Hitz egin ere ezin zuen, bakarrikan deiadar egin, zoro baten antzean, eta herri guztiak irten zuen kalera. Ze iskanbila, ze zarata! Azkenean konprenitu nuen, konprenitu genuen, zer gertatu zen. Amoratu pareak, Beñat eta Belen, oihanean igaran zuten eguna, ziza bila, eta soldadoarekin egin zuten topo, harekin aurkitu ziren, maitale enganagarrien bila zoanean. Soldadoak esan zuen kulpadunak punituko zituela, eta Beñat ikusi zuen eta berehala, fusila jaso zuen aurpegira, eta tiro bat bota zion. Belen mintzatzen bukatu zenean, mendekantza eskatzen zuten deiadarrak entzun ziren jentearen artean. Arteak galdu zituzten, eta adimentua eta zentzu ona bihur arazitzeko egiten nituen eginahal guztiak, alferrikakoak ziren. Mundu guztia abiatu zen mendira, neskak eta mutilak, gizonak eta andreak, hutsik geratu zen herria, bakarrik geratu ginen Belen eta biak. Elizan sartu ginen, ezer gerta etzedin, Jainkoari errezatzera, Ama Birjina Doloretakoari otoitz egitera. Baina goian etzuten gure erregurik entzun nahi ukan. Beharbada entenitu zuten Paradisokoek gure orazioak ahozkoak zirela bakarrik, eta ez bihotzezkoak. Gu urrikari bekatariorik! Handik ordu betera, iskanbilak eta aldarriak entzun ziren plazan. Belenek, zoro batek bezala, elizatik egin zuen alde, baina ni barnean geratu nintzen, zarata guztia isildu zen arte. Orduan kanpora abiatu nintzen ni ere baina eznuen Inor ikusi, bakarrik arbola horretatik zintzilik, Joanetegiren gorputz urkatua. Aize haundia egiten zuen, eta hilotzak, aize arrosaren moduan, iparrera eta hegorat egiten zuen jira eta bira. Zer neindikeen nik haren alde? Arbolaren adarretik jatsi nuen lurrera, eta olioak eman. Etxera joan nintzen, triste eta damuz, baina hurrengo goizaldean, biharamuneko zazpiretan, hilotza etzegen nik utzi nuen lekuan. Etzuen lur santurik hartu, mendiko ezkutuan ehortzi zuten, eztakit nork, eztakit nun. Nire galdera eta azterketa guztiak alferrik izan dira. Isiltasunezko kapusai bat hedatu da nire ardien artean. Hori da dakidan guztia. Egia esan dizut, egia osoa, eta egia ezten gauzarik eztizut esan.

MANDATARIA: Ederki. Herritar prestu bat bezala portatu zara. Zure prestutasunaren premio, libre geratzen zara, eta judizio osoan hemen presente egotea zilegi izanen zaitzu.

APAIZA: Asko estimatzen dizut. Unaiak jakin behar du zer gertatzen den bere artaldean.

MANDATARIA: Medikua sar dadila. Zu, apaiz laguna, eser zaitetz nunbait.

Medikua sartzen da.

MANDATARIA: Ea zabaldu zaizkan begiak satorrari.

MEDIKUA: Hemen nadukazu berriz ere, jauna.

MANDATARIA: Bai, ikusten zaitugu.

MEDIKUA: Eznaiz kexatzen, eztut protestatzen.

MANDATARIA: Badadukazu zergatik kexa, zergatik protesta?

MEDIKUA: Zer esanen dut? Baietz esanen banu, orduan kexatuko nintzake, eta ezetz esanen banu, ez nintzake kexatuko.

MANDATARIA: Bai, konprenitzen dizut, kexatu, baina ez kexatu, zara egiten.

MEDIKUA: Eznuen ezer ikusi, eznuen ezer jakin. Heriotze bi zertifikatu nituen, hemen dakarzkite zertifikatu biak. Hauen kopiak Hiri Nagusian daduzkate. (*Paper bi ateratzen ditu, eta Mandatariari luzatzen dizkio. Honek irakurten ditu.*)

MANDATARIA: ...autopsia eginez geroz... berunezko bala bat garako hutsunean... (*Bestea irakurririk.*) ...aire-falta... seinale more asko gorputzean... (*Faltrikaran gordetzen ditu bi paperak.*)

MANDATARIA: Ederki, txit ongi... Bai, bai, bai, bai... Gorde eginen ditugu...

Lekukotasuneko proba gertuak dira... Baina honekin etzoazi aurrera; lehengo

lekuan bertan geratzen zara. Gauzaren bat egonen da, zure buru barnean ezkutatua, antsiarik eman eztiozuna, gure hauzian argitasuna emanen duena. Hola pasatzen da askotan. Egun batean ikusten duzu nola... (*Kapitainari.*) Kapitain jauna: Ekar dezatela berehala eskola maisua eta alkatea. Eta zortzi soldado haien fusilekin. Izan ditezila tiratzale onak. (*Kapitaina joan eta sartu egiten da teatrutik.*) Bai, mediku jauna. Bai. Bizia garratza da. Eztakigu etorkizunaren berri. Zuk behintzat. Nik bai. Oro dakit. Zer gertatuko den eta zer ezten gertatuko. Nire aginduetara dago dena hemen. Zer diodan, hura betetzen da. Bihar goizeko hamarretan eginen duen beroa ere esan dizazuket, termometroak berak ere niri obeditzen didalako. Eta sinesten ezpadidazu... dudatik etzara aterako. Eztakizu? Tiratzale onak ekarri datugu gurekin. Nun begia, hara tiroa. Pikete buruzagiaren aginduak baino gehiago etzenuke zuk iraunen. Nik nahi nukeen momentuan bertan hilen zineke. Dudarik ezta dukazu, ezta? Orduan, zergatik dudatu duzu bihar termometroak nik guratzen dudan beroa markatuko duela? Ederki, ederki, txit ongi, arras ongi... Esaten genuen... Nola batzutan ikusten dugun gauza bat... eta ez kara konturatzen... Beste gauza askorekin baikaude arduraturik... eta arduratzen garen gauzen azpian hamiltzen eta ehorzten da ikusten dugun beste gauza hura... Zure buru barnean aurkitzen da nik behar dudana.

MEDIKUA: Eta gogoratzen ezpanaiz?

MANDATARIA: Beste bat gogoratuko da. Begira, hor datortza maisua eta alkatea. Gure artean, inter nos, laguna. Aleginak egiten ezpadituzu... (*Soldadoak, maisua eta alkatea sartzen dira.*) ...beste batek eginen ditu. Eta beste honek bere bizitza salbatuko du. Begira eskola maisua, nola ikaraz eta dardar datorren. Hau, bere haurtzaroan entzun zuen lehenbiziko hitzaz oroituko da. Ez ukan bildurrik. Maisu jauna, hurbil zaitez. Zeinbat urte dituzu?

MAISUA: Hogetamar, jauna.

MANDATARIA: Edade ederra, bai, oso ederra, osagarri onarekin bizi izateko, halaegia. Baina soldadoak oso gogorrak dira, astokilo koadrila bat direla esanen nuke. Nik esaten diet: gizon honi konfesa arazi zaiozue, eta nola niri eztidan nola konfesa arazitzen dioten batere axolarik, haiek, beren metodoak enplegatzen dituzte. Esanen dizute, anka biak heda itzatzu, eta gero imini bi eskuak lurraren gainean. Hala paratzen dira mutilak zapoketan egiteko. Baina gerta liteke (hain basatiak baitira soldadoak!), soldado batek ostikada bat emanen dizula atzetik ankartean. Hori egiten, zaleak dira soldadoak. Batez ere, hordirik daudenean. Eta nik soldadoeri, konfesa arazitzea hasten dutenean, arnoa ematen diet. Batzutan, alegre nagoenean, koinaka ematen diet. Badakit nire bekatua dela. Baina zer eginen dut? Atsegin dut. Eta horrelako ostikada bat sufritu ezker, zertarako ikusiko dugu andreen edertasuna? Beste batek gozatuko du. Guk ezkenuke gozatzeko indarrik edukiko. Baina dena dela, hobe da nolabait bizi izatea, ez inola ere bizi izatea baino. Hobeki egoten da lurraren gainean, lurraren azpian baino. Ezta hala? Erretira zaitez. Apaizaren aldean eser zaitez, ezer esan gabarik. Entera?

APAIZA: (*Bere lekutikan altxatzen da.*) Mandatari jauna: Goiko Jaunaren izenean, eta Zuzenbidearen izenean, agintzen dizut, eztezazun gaiztakeriarik egin. Asmoak ikusten dizkitzut. Badakit nora zoazin, eta ikusten dut bertara allegatzeko edozein bide hartzeko zaudela prest. Eztezala, jauna, odol inozentak paga, odol doilorraren bidegabea.

MANDATARIA: Kapitain jauna, gizon hori berriz mintzatzen bada, bistatik kenduko didazu. Eztit axola nora eramaten duzun, gartzela edo urkamendira. Berdin dit.

KAPITAINA: Nire iritzian hobeki egonen litzake eliz barnean. Eliz gizonak begiratzera bakarrik atera beharko lirake mundura, hala nola mundu gizonak bakarrik begiratzera sartu beharko lirakeen elizan.

MANDATARIA: Begira, kapitaina. Hemen ditugu gizon bi. Esan didate hauk direla herriaren alderdi bien arimak. Medikutiarrak eta alkatiarrak. Ezta hemen ezer gertatzen hauen ezagutzarik gabe. Kontrol izugarria daramate hemengo bizitzaren gainean, eta ezta hemen ezer ere mugitzen, ez eta hegatzina baten hegalak, hauen baimentua gabe. Hemen medikuak dio, berak eztakiela deus gure zer eginaren

ganean. Ederki jokutzen du satorraren ofizioa. Kargutik dimiti arazi diogulako, gure kontra dago alkatea, gurekin oso hasarraturik dago, baina hasarre horren ostean, zer ezkututzen da? Martiriaren ofizioa jokutzen du ederki. Eta bere martiritzaren gibelean, bere hasarrearen gibelean, arima oso beltz bat ezkututzen da, bere aurpegi ilunaren atzean gaiztakeria ilun bat. Zer deritzazu?

KAPITAINA: Eztago batere dudarik, niri behintzat etzait apurrena ere kabitzen, aferaren funtsa gizon bi hauetatik batengan dagoela sustraiturik. Bat urkatu behar dugu. Baina zein?

MANDATARIA: Biak urkatzen baditugu, erruduna geratuko da kastigaturik.

KAPITAINA: Baina bestea inozenta da, eztaduka errurik. Inozent bat kastigatuko duzu.

MANDATARIA: Inozentziak eztu premiorik merezi.

KAPITAINA: Baina zergatik mereziko du kastigu hori?

MANDATARIA: Isiltzen den inozent bat, inozent tonto bat da. Eta tonterriak kastigoa merezitzen du. Biak urkatzen edo afusilatzen baditugu... kriminal bat eta tonto bat afusilatuko ditugu. Munduak eta gobernuak gure egintza estimatuko dute.

KAPITAINA: Orduan, haiek erabaki dezatela, demostra dezatela tontoak eztirena.

MANDATARIA: Jaunak, hurbil zaitetze! Zuek zer diozue? Nahi duguna, bilatzen duguna esplikatu duzue?

MEDIKUA: Nik eztakit deus.

MANDATARIA: Eta zuk, alkate jauna?

ALKATE: Are guttiago.

MANDATARIA: Beren buruak kondenatu dituzte. Nik haien epaiaren eta sententziaren azpian firmatu beste, eztut egiten. Afusila detzatela.

Soldadoen artean ateratzen dira medikua eta alkatea. Minitu erdi baten buruan tiro batzuek entzuten dirade.

MANDATARIA: Akabatu ziren.

APAIZA: Jaunak, edo zuen izaera bere izenez aipatzearen: animaliak. Lehen mehatxatu nauzue, berriz edekitzen badut ahoa, aldez edo moldez isilduko nauzuela Ezut niri ez aldeak ez moldeak axolarik, baina nire deskontentamentua, nire protesta esan behar dut. Edozein gauza daidikezue enekin, baina eznaiz isilik geratuko. Zerriak eta hienak baino zikinagoak zarete. Zuek egiten duzuen egiten duenak, eztu gizonaren izenik merezi.

MANDATARIA: Kapitain jauna, honela sartzen baldin badira oro gure zer egineon, ezta hau sekulare bukatuko. Leku apartatu batera eramanen duzu aho zahal hau, eztezadan sekula berriz ikus. Gero mintzatuko gara harekin, beharbada.

KAPITAINA: Ederki. (*Apaizarekin ateratzen da.*)

MANDATARIA: Eskola maisua, hurbil zaitezi, faborez, elkar hizketa luzea eduki behar baitugu. Esan, esan... Badakizu zuk zer jakin nahi dugun, ezta?

MAISUA: Mesede bat eskatuko dizut, jauna.

MANDATARIA: Ezta mesederik, esan.

MAISUA: Nik hemen deklaratu dudana guztia egia izanen da. Baina egia dioena ezta beti sinetsia. Horregatikan, nik diodana egiaztatzeke, beste persona bat etor dadila eskatzera ausartuko nintzake. Deklarazioak aparte hartuko zaizkigu, hari eta niri. Deklarazio biak berdinak badira, ze beste proba nahi duzue, egia diogula.

MANDATARIA: Arrazoiarekin mintzatzen zara. Nor da, bada, beste persona hori?

MAISUA: Haren inguruan gertatu ziren hemengo gertaera guztiak. Inork mundu honetan errurik baldin ezpadaduka, inor mundu honetan elurra baino egiatiagoa baldin bada, nik ekarriko dizut honera. Haren ezpainetatik ezta gezurrik aterako, hala nola hodeietatik ezten ur zikinik eroriko. Eta norbaitek asuntu honekin sufritu badu, bera da hori.

MANDATARIA: Eta haren izera, Belen da, ezta?

MAISUA: Nola dakizu?

MANDATARIA: Gauza gutti dago, nik eztakidanik.

MAISUA: Orduan, zertarako judikatzen gaituzu?

MANDATARIA: Ederki. Hari ere hartuko diogu deklarazioa, eta erreboluzioaren bandera gorri eta urdinagatik zin egiten dizut, harek esaten badigu zuk eztioskuzun gauza, aurkientza honetan aurki litekeen haritz artezenetik urkatuko zaitudala. Konforme?

MAISUA: Bai, akort nator zurekin.

MANDATARIA: Kapitain jauna, bila dezatela edonundik Belen hori.

Badoa kapitaina.

MANDATARIA: Has zaitezi.

MAISUA: Nundik?

MANDATARIA: Bere hasiera eduki zuen munduak ere.

MAISUA: Baina hasiera guztiak bezalaxe gogorra izan zen hasiera hura ere.

MANDATARIA: Esaizu nola ezagutu zenuen Belen hori.

MAISUA: Ni eznaiz hemengoa, jauna, Mugarteko hegoaldean jaioa naiz, baina herri honetako maisutza eman zidatenetik, hemen bizi izana nago, eta mugaldeer bat gehiago kontsideratzen naiz.

MANDATARIA: Ez ibil errametatik.

MAISUA: Esan nahi dut, jauna, herri honek bere espiritua dadukala, nik asko maitatzen dudana. Eta Mugalde maitatzen duenak, Belen maitatu behar du.

MANDATARIA: Ongi, ongi, arras ongi. Ederra, maitagarria eta errekaldeko lamiak baino liluragarriagoa izanez gainera, ze deabru eta ze arraio gertatzen da neska horrekin?

MAISUA: Udaberriko lorea, sasi arteko pospolina, hamabi ostoko krabelina, ilargi beheran, botillatu den txakolina, gauza gozoa eta biguna, herrian zegoen galairik zelebaturuenak hartu zuen andre gai. Hori izan zen bere zoritxarra. Lehen lorea zena, orain orbela da. Tristerik dabil munduetatik orain Jainkoak kreatu zuen izakirik alegrena.

MANDATARIA: Eta Maria Joanetegi, nor zen?

MAISUA: Pentsa litekeen sorginik itsusiena. Begizkoa egin zion Beleni, eta oso osasun txarrarekin ibili zen hau haur denporan. Egun batean, Beñat Larresorokok, ur benedikatuz busti zuen Mariaren gorputz guztia, eta gero asunarekin legortu zion. Gero makila lodi batekin hezur guztiak hautsirik, aurrerantzean inori begizkorik ez egiteko agindu zion sorginari. Orduan, Belenen gorputza kimatzen eta loratzen hasi zen, eta florea allegatu zitzaionean, hemen ikusi den zitroirik doratuena zen.

MANDATARIA: Nun dago orain Maria Joanetegi hori?

MAISUA: Mugandira, atzerrira ihes egin zuen.

MANDATARIA: Eta ezin deklaratu dezake. Uste dut haren deklarazioa ezlitzakeela zurearen parekoa.

MAISUA: Haren ahotik beti ateratzen da pozoia eta zornea; aker kirastun batekin sartuko nintzake ni, harekin baino lehenago.

MANDATARIA: Etzaitzu gustatzen?

MAISUA: Gusta? Hura niri gusta? Amorante lizuna! Herri aldeko mozkorti eta arlote guztiek gozatu dute haren larrua. Sats eta zimaur gehiago aurki liteke haren gorputzean, munduko zerritegirik zikinenean baino.

MANDATARIA: Mozkortu zara zu inoiz?

MAISUA: Ni mozkor? Honekin esan nahi duzu ea inoiz izan den hura nire amorantea?

MANDATARIA: Bai.

MAISUA: Eztizut esan, bada, eztagoela inor herri aldean, harek liluratu eztena? Sorgina zen. Enkantamentua zedukan. Haien belar eta ungentuekin, gizonen deseok zoratzen zituen. Baina batekin etzion baliorik ukan haren sorgin izateak. Eznintzen ni hura izan, ez. Beñat Larresoroko izan zen. Bortitza zen mutila, gogorra, indartsua. Aurpegira barre egiten zion, sorgina, atsoa, ahardia eta puta deitzen zion.

MANDATARIA: Eta soldadoak, bien bitartean, zer egiten zuen?

MAISUA: Etzen ezertaz enteratzen, hura baitzen gizon guztirik atzipetuena, enganatuena, liluratuena, zoratuena eta enkantatuena. Eztuzu sekula ikusi txori errusinola bat,

sugearen aurrean? Sugea igaten da errametatik, txoria kantari eta txirriokari dagoen lekura; sugea geldiro doa; erramen artean beste errama bat dirudi. Txoria dagoen lekura heltzen denean, haren aurrean plantatzen da, lepoa altzaturik, txistu egiten hasten da. Txoria ezta mugitzen, ezta atrebitzen. Zer kostatuko litzaioke urrikariari, hegalak airean hedatu eta astindurik, hegaldatzera abiatzea? Ezer ez. Baina ezta mugitzen, ezta atrebitzen. Hipnosia deitzen zaio horri. Eta hala gertatzen zitzaion Joanetegiri. Sugea eta txoria. Izen polita komedia batentzat.

MANDATARIA: Ipui ederra, komedia ederra asmatu duzu. Gero sugeak bere burua eta mihin pozoatsua jaurtikitzen du txoriaren kontra. Hala gertatu zen?

MAISUA: Ez hola. Egun batean sugea aspertzen da, pentsatzen du txoria eztela mokadu egokia, haren sabel eta tripa haundia ez asetzeko adinekoa, eta beste baten gainean imintzen ditu begiak. Harekin eskapatu zen, herri honetan jadanik inork kasorik egiten etziolako.

MANDATARIA: Bai?

MAISUA: Begira. Parabolak alde batera utzirik, gauzak gertatu ziren bezalaxe esanen dizkitzut. Begira. Mariaren bizioak eta eskandaloak haundiegiak ziren, baina are haundiagoa zen haren senarraren lotsa falta. Orduan erabaki zen, mundu guztiak jakin zezala nolakoa zen gure andrea, mundu guzti horretatik Joanetegi soldadoa kendu gabe. Eta toberak muntatu ziren.

MANDATARIA: Bai, tobera mustra sekulakoak zelebratu zenituzten.

MAISUA: Joanetegi komitatu genuen. Han zegoen bera, aurreneko hilaran, eta asko gustatu zitzaion komedia; asko barre egin zuen, eta jenteak gehiago barre egin zion Joanetegiren barreari, toberari baino. Joanetegiren andrea ezomenzen handik agertu, beharbada alde zurretik zekielako, han zer gertatuko zen. Toberak egin ziren, bai, eta hurrengo egunetan etzen aldakuntza haundirik Joanetegiren bizi moldean egin, baina andrearenean, bai, haundia, toberek gizon guztien begiak argitu zituztelako, eta etzedukan sorginak nor ohera eraman.

MANDATARIA: Bai, bai, bai. Segi eta jarrai.

MAISUA: Orduan, tristezia eta hasarrea egin zen sorginaren bihotzean. Eta hortaz bai konturatu zen soldadoa. Honen pentsaera geldia zen, baina segurua. Dudak sartu zitzaizkan buruan, eta andrearen joan etorriez arduratu zen. Hau gaizki zebilen, eta nola inork etzion kasorik egiten, herrian zegoen mutilik gizarajoenarengan imini zituen begiak.

MANDATARIA: Bai, bai, bai. Segi eta jarrai.

MAISUA: Amoranteak egin ziren, eta egun batean, Joanetegi tabernan zegoen orduan, plazatik agertu ziren, gurdi batekin, eta mugara bidea harturik, arinki abiatu ziren ihesi. Zergatik hautatu zuten egunaren argia beren eskapua egiteko? Inork eztaki. Gau iluna hauta zezaketen, eta hola etzen inor, ordu batzu igaran artean, enteratuko. Baina ez, honelako gauza bat egiteko, desordurik desegokiena hautatu zuten. Eta laster allegatu zitzaion berria Joanetegiri. Guztiok pentsatu genuen horregatik hautatu zutela eguerdia ihes egiteko, edonork ikusi zuelako, maleta eta fardel guztien gainetik, fusil bat. Joanetegik bere zamaria hartu zuen. Biraoka zoan, eta norbait hilen zuela zin egin zuen. Nik banenkien norbait hilen zuela, norbait horrek hura hiltzen ezpazuen lehenago. Eta norbait hil zuen baina ez guk pentsatu genuena.

MANDATARIA: Bai, guzti hori badakit nik. Nola andreak muga eta portua alkantzatu zuen, eta nola agertu zen herrian Belen zure prenda galant hori, intziriaka eta negarrez, Joanetegik bere senargaia hil zuelarik. Eta nola jentea abiatu zen soldadoaren bila. Baina jakin nahi nuke nor izan zen haren bila lehendabizi abiatu zena.

MAISUA: Jenteak deiadar eta aldarri egiten zuen, zer egin jakin gabe. Mediku jaunak bere behorra hartu zuen, eta inori ezer esan gabe, mendira bidean abiatu zen. Ezkenuen ikusi zelatik zintzilik haren tresna maleta, eta pentsatu genuen mendeku bila zoala.

MANDATARIA: Orduan?

MAISUA: Orduan alkateak jenteari esan zion, medikuarekin joan behar genukeela denek, eta hara joan ginen. Joanetegi harrapatu genuen. Portuan zegoen hau, muga

igaratera ausartu gabe, eta bere fusilarekin tiratzen zuen, amoranteak desagertu ziren lekura. Hasarrearren zororik zegoen, aurpegia aldaturik, mutu.

MANDATARIA: Herrira ekarri zenuten.

MAISUA: Bai, alkateak bere zamariaren zelara lotu zuen soka luze batekin. Eta honerat heldu ginenean, nola jakin gabe, arbola horretatik urkatu genuen.

MANDATARIA: Nork imini zion soka lepora?

MAISUA: Eztakigu. Denak geunden gorrotoarren itsurik. Nor izan zen? Eztakit. Beharbada ni. Beharbada beste norbait. Herri guztia, oro, bakoitza. Baina krimenaren egiazko erruduna, ezkinen gu izan. Maria Joanetegi izan zen. Desordu desegoki hura hautatu zuelako. Bazekien harek Beñat Larresororekin eginen zuela Joanetegik topo bidean, haren atzetik abiatzen baldin bazen. Gainerako guztia igarririk zedukan. Hura da kulpaduna.

MANDATARIA: Orain, Belen zoragarri horri galdetuko diogu. Etor dadila. (*Belen agertzen da.*) Maisu jauna, zuzen zeunden. Lore ederra da gure Belen, arrosa polita, krabelina zoragarria. Hurbil zaitezi honera, ez ukan bildurrik. Hemen zure amaren magalean baino preziatukoago zara. Belen, Belen. Izen ederra dontzella batentzatekoa. Zeinbat urte dituzu?

BELEN: Hogeia, jauna.

MANDATARIA: Edaderik xarmangarriena.

BELEN: Deklarazioa emateko edade guztiak dira onak, jaunak, edadeak ezpadio deklaratzaleari buruko argia kendu.

MANDATARIA: Aurpegi ederra eta mihin zorrotza. Honelakoak dira andrerik gaitzenak, andrerik deseatuena. Baina niri, andre kontuetan, arriskua gustatzen zait. (*Kapitainari hitz egiten dio:*) Kapitain jauna, neskak honen deklarazioa sekretua izanen da. Ikusle eta entzule guztiak, zu aurretik egonik, hemendik joanen dira.

MAISUA: Jauna, hori ezta zilegi.

MANDATARIA: Zergatik?

MAISUA: Badakit zure asmoa. Gure judizioaren gainean etzara harekin mintzatuko. Herrian hedatu da zure berria, nolako agure linburi eta haragi zalea zaren.

MANDATARIA: Isil zaitezi!

MAISUA: Eragotziko dizut zuri, aker adurti horri. Eztuzu zure adurrarekin lore usain gozoko hori zikinduko.

MANDATARIA: Kapitaina, alde egin zazue orok hemendik berehalaxe. Eta honi, mihin luze honi, lotsa gabeko honi, ehun zihor kolpe emaitzue nire partez, erregaloo. (*Oro joaten dira.*) Zu, Belen, ez, etzaitezi joan, nirekin geratuko zara, mintzatu behar baitugu biok.

BELEN: Ez, utz zaidazu niri ere joaten.

MANDATARIA: Gera, gera zaitezi. Zuk zure ama edukiko duzu, edo zure aita bat, edo neba ahizpak. Pentsa zazu, haien bizi modua, haien bizitza ere nire eskuetan dagoela.

BELEN: Etzaitut konprenitzen.

MANDATARIA: Asko gustatu naiz zurekin, neska, nire bihotza prendatu duzu, (*Belenek alde guztietara begiratzen du, eta zuleriatik jatsi nahi du arinki, baina Mandataria hura baino arinagoa da, eta eskutik harturik, lurrera botatzen du neskak.*) Begira, neska, nirekin artez ibil... Eztut nik txantzetan ibili nahi. Horregatik gauzak argiro esanen dizkitzut. Herri honen etorkizuna nire eskuetan dago. Eztuzu ikusi nola afusilatu diren oraintxen gizon bi? Honela afusilatuko ditut hemengo gizon andre guztiak nire gutziari amore ematen ezpadiozu. Entzun? (*Mutil gazte bat sartzen da deiarrez.*)

MUTILA: Sorgina! Sorgina etorri da! (*Badoa.*)

MANDATARIA: Ze arraio gertatzen da? (*Bigarren mutil bat sartzen da.*)

MUTILA: Sorgina, sorgina, sorgina, sorgina! (*Badoa.*)

MANDATARIA: Kapitaina! Ager zaitezi! (*Hordi biak agertzen dira.*)

LEHEN HORDIA: Mandatari jauna!

MANDATARIA: Nola demonio atera zarete presondegitik?

LEHEN HORDIA: Bertsolari bi giltzapean edukitzeko, gartzela naikoa haundirik eztago. Badakizu zer gertatu den? Sorgina etorri da! Maria Joanetegi zori gaiztokoa! Orain justizia egin dezakezu!

MANDATARIA: Bai? Eta nola?

LEHEN HORDIA: Herri osoak deklaratu du haren kontra. (*Kapitaina, soldadoak, herriko jentea, apaiza, maisua, sartzen dira. Eta guztien aurretik, andre eder eta urtetsu bat.*) Mandataria, hor duzu erruduna. Zabal ditezila zeruak! Ilun dadila eguzkia, zuk hura kastigatzen ezpaduzu!

MARIA: (*Mandatariari.*) Jauna! Maria Joanetegi naiz. Nire gizona, nire gizon maitea, herri honetan izan zen hila. Eta egiak deklaratzera etorri naiz.

MANDATARIA: Zer esan dezakezu zure alde?

MARIA: Ihes egin nuen hemendik, jauna, etzezaten nirekin egin nire gizonarekin lehen egin zutena. Gure soldadotza honera etorri zela jakin nuen bezain laster, berehala etorri naiz honera ni ere.

MANDATARIA: Maisu jauna!

MAISUA: Esan!

MANDATARIA: Ezagutzen duzu andre hau?

MAISUA: Bai.

MANDATARIA: Nor da?

MAISUA: Bere gizonaren erailea!

MANDATARIA: Maria Joanetegi andrea! Nork hil zuen zure gizona?

MARIA: Herri honetako gizon andreak!

MANDATARIA: Jainkoaren izen sakratua! Baldintza hauetan nola liteke inor judikatzale justu eta zuzena izan? Zer dakit nik orain? Hauk dira nahastale galantak! Baina nolabait erabaki behar da hau! Zer egingen dut? (*Jentearen eta soldadoen artean paseatzen da.*) Norbait izanen da kastigatua! Andrea ala herria. Niri berdin dit. Eztut herri honetan egun bat pasatu, eta asperturik nago jadanikan. Mugarteko bidean paratu behar naiz gau honetan nire Belenekin, basoko lore koloretsu hau ikus dezaten hirian. Nik erabaki nahi eztudana, zorteak erabakiko du!

MARIA: Ez! Justizia parti!

HERRIA: Zortetik ez! Zuk erabaki zazu!

MANDATARIA: Aurpegia ematen baldin badu, urkatua izanen da Maria. Gurutzea ematen baldin badu, herriko etxe guztiak, eliza, pilota tokia eta edozer gauza lurrarekin berdindua izanen da. Zortea. Hau izanen da erabakitzailea, juezik artezena.

MUNDU GUZTIA: Ez.
Ez.
Ez.
Ez.
Ez.
Ez.

MANDATARIA: Diru ona da, erregearen diru zaharra, zilarra. (*Diru moeta bat jaurtikitzen du airean, jira biraka.*) Aurpegia ala gurutzea? Justiziarik ederrena! (*Kolpe bortitz batekin, oholaren gainean erorten da dirua. Jentea aldarrika intziriaka abiatzen da. Mandataria kanpora abiatzen da Belenekin, baina desagertu baino lehen, kapitainari diotsa:.) Kapitain jauna, nire sententzia kunpli bedi! (*Badoazi. Kapitaina lurrera makurtzen da, dirua hartzeko.*)*

Teloia korriturik,
komedia hau akabatzen da.

Mugaldeko herrian eginikako tobera, Gabriel Aresti

Egan, 3/6-1961
